




OINARRIAK “DONEMILIAGA: EZAGUTZEKO TXOKOA”, ARGAZKI LEHIAKETA



2026

1.- GAIA:

Irudiek Donemiliaga udalerriko natura, etnografia eta paisaia-ingurunea, ondarea, artea, ohiturak, usadioak, festak, kultura-ekitaldiak... erakutsi behar dute. Baldintza hori betetzeko, aurkeztutako argazkiek argi eta garbi adierazi beharko dute argazkiak egin diren lekua edo parajea Donemiliaga udalerria osatzen duten hamabost herrietako batena dela.

Lehiaketaren helburua udalerriko turismoa bultzatzea da, eta, horretarako, besteak beste, irudiak egutegi bat osatzeko erabiliko dira.

Saritutako argazkiak Donemiliagako Udalaren egutegian argitaratuko dira.

2.- PARTE-HARTZAILEAK:

Lehiaketan izena ematea doakoa da eta 14 urtetik aurrerako edozein pertsona fisikok parte hartu ahal izango du.

3.- BALDINTZA TEKNIKOAK

Parte-hartzaile bakoitzeko, gehienez, **2 lan** aurkez daitezke.



Argazkiak argitaratu gabeak eta saritu gabeak izango dira.

Originalak, zuri-beltzean edo koloretan ateratakoak izan daitezke.

Egutegiaren diseinuagatik argazkiak **formatu etzanean** aurkeztea gomendatzen da.

Ezin izango dira gehitu edo ezabatu aurkeztutako argazkiaren jatorrizko konposizioa aldatzen duten elementuak.

Irudi bakoitzeko aurkeztu behar da:

1- Argazki-paperean egindako inpresioa, (**NEURRI LIBREA**) eta **A4 kartoi mehe beltz batean jarriak**.

2- JPEG/JPG formatuko fitxategi elektronikoa, eta bereizmen-maila maximoarekin (300 p.p.nahitaezkoa) **CD, USB... euskarria ere erantsiko** da.

4.- LANAK AURKEZTEKO MODUA

Gutun-azal itxian entregatuko dira Donemiliagako Udaletxeko bulegoetan, eta kanpoaldean hau idatzi behar da: XIX. Argazki Lehiaketa: "DONEMILIAGA: EZAGUTZEKO TXOKOA - SAN MILLÁN: RINCON PARA CONOCER (2026)".

Argazki bakoitzeko datu hauek biltzen dituen orrialde edo ohar bat idatziko da:

- Egilea: izena eta abizenak, NAN, jaiotza data, helbidea, harremanetarako telefono-zenbakia eta/edo posta elektronikoaren helbidea.
- Izenburua: argazki guztiek izango dute izenburua.
- Argazkia ateratako tokia eta data (nahitaezkoa).

5.- AURKEZTEKO EPEA

Lanak Donemiliagako Udaletxean aurkez daitezke astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara, edo posta ziurtatuz bidali helbide honetara: Donemiliagako Udala - Andia, 9- behea; 01208 Erdoñana, Araba

Lanak aurkezteko azken eguna: **2026ko urriaren 2a**.

6.- SARIAK

- 12 akzesit, bakoitza 80 eurokoa.

Lehiakide bakoitzak gehienez 2 akzesit eskuratu ahal izango ditu.

12 akzesitak kategoria hauen arabera banatuko dira, kategoria bakoitzeko bi akzesitak banatuko dira:

- Natura-ingurunea: natura, paisaiak, espazioak, fauna, flora, etab.
- Ondarea: elizak, ermitak, eraikinak, monumentuak, elementu txikiak, artea, etab.



- Kultura-jarduerak: jaiak, ekitaldiak, erromeriak, tradizioak...
- Lehen sektorea: nekazaritza, abeltzaintza, erlezaintza...
- Artisautza, gastronomia eta nekazaritzako elikagaiak...
- Garapen eta hazkunde iraunkorra, berdintasuna eta euskara.

Epaimahaiaren iritziz, kategorietako bat hutsik geratu behar bada edo kategoria horietarako aurreikusitako bi akzesitetatik bakarra eman behar bada, hutsik dauden akzesitak gainerako kategorietan eman ahal izango dira, epaimahaiaren irizpidearen arabera.

Sari bakoitza besterenezina da, eta indarrean dagoen zerga-legediaren mende daude. Legez ezarritako atxikipenak egiten zaizkie, eta parte-hartzaileek berriaz onartzen dute hori.

7.- EPAIMAHAIIA

Udaleko langileek eta adituak diren lagunek osatuko dute. Eraitza azaroaren lehendabiziko asteetan jakinaraziko dute. Irabazleei telefonoz deituko zaie sarien berri emateko, eta sari-banaketa zein aurkeztutako lanen erakusketa 2026ko azaroaren 14an izango dira Donemiliaga jaietako egitarauaren barruan. (Sariak emateko data eta modua aldatzen badira, irabazleei jakinaraziko zaie).

Epaimahaiak kontuan izango du: irudiak lehiaketaren gaiarekiko duen lotura, eta aurkeztutako lanen kalitatea.

Sariren bat hutsik gera daiteke, epaimahaiak hala erabakitzen badu.

8.- ESKUBIDEAK

Argazki guztiek **pertsonen intimitatea zaintzeko** eskubidea eta norberaren irudirako eskubidea errespetatu behar dute, dagokion legea diotenari jarraiki.

Parte-hartzaileak adierazten du parte hartzen duen argazkian agertzen diren pertsona identifikagarrien berriazko eta zalantzarik gabeko baimena duela, argazkian ager daitezkeen adingabeen aitaren, amaren edo tutorearen baimenarekin, bai eta jabetza intelektualaren, industrialaren, irudiaren eta/edo argazkiari buruzko eskubideen titularren beharrezko baimen guztiekin eta/edo lehiaketan parte hartzeko erabili dituzten argazkietan edo argazkietan sartutako edukiei buruzko beste edozeinekin. Erakundeak ez du inolako erantzukizunik izango.

Donemiliagako Udala saritutako irudiez jabetuko da, baita aurkeztutako irudietatik nolabaiteko garrantzia duela balioesten dituen irudiez ere. Argazki horien publikitate, zabalkunde, erreproduzio eta aldatzeko eskubideen lagapena Udalarari egingo zaio doan. Lagapena eskusiboa izango da, munduko edozein herrialdeetarako eta denbora eperik ez du izango, eta egileak uko egingo dio, sari horren kontzeptuan jasotakoa ez den beste edozein konpentsazio eskatzeari.



Argazkiak argitaratzean, parte-hartzailearen izena eta abizena baino ez dira adieraziko, inolako baldintzarik gabe eta horrek inolako kontraprestaziorik ordaindu beharrik gabe. Horretarako, parte-hartzaileek baimena ematen diote Donemiliagako Udalari argazki bakoitza eta egilearen izena informazio eta sustapen material guztietan ager dadin, inprimatuta edo digitalean eta Sare Sozialetan.

9.- DATU PERTSONALEN BABESA ETA TRATAMENDUA

Lehiakide guztiek baimena ematen diote Donemiliagako Udalari, haien datuak bertako fitxategian eransteko, haiak erabiltzeko eta tratatzeko - automatizatuta edo ez -, beti ere, aurkeztu diren lehiaketak eragindako jarduerak kudeatzea eta erregistratzea bada helburua.

Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoan, abenduaren 5koa, ezarritakoa betez, Donemiliagako Udalak jakinarazten dizu, inprimaki honen bitartez jaso dituen zure datu pertsonalak, Udalak kudeatzen duen datuak tratatzeko jarduera batean sartuko dituela, xedea administrazio espedienteen izapidetza eta kudeaketa izanik, baita hauetatik eratorritako administrazio jarduerena ere. Ez da aurreikusten hirugarrenei datuak ematea, edukiaren arabera legalki derrigorrakoa izan baliteke ere. Egokia balitz, zure datuak ikusi, zuzendu edo ezabatzeko eskubidea balia dezakezu, baita bere tratamendua ez baimentzekoa edo mugatzekoa ere, honako helbide honetara joz ; Donemiliagako Udala: Andia 9, 01208 (Araba.), edo honako helbide elektronikora; donemiliaga.harrera@ayto.araba.eus. Bertan informazio gehigarria eskatu ahal izango duzularik.

10.- OHARRAK ETA ARDURAK

Lehiaketan parte hartzeak berarekin dakar oinarri guzti-guztiak onartzea.

Oinarrietan aurreikusi ez den gorabeheraren bat izanez gero, lehiaketaren epaimahaiak, eta berak bakarrik, erabakiko du.

Saririk jaso ez duten lanak udal bulegoetan 2026ko abenduaren 29 arte jaso ahal izango dira. Epe horretan lanik jaso ez duten parte-hartzaileek obrei uko egiten dietela ulertuko da, eta erakundeak egokitzat jotzen duen erabilera eman ahal izango die, betiere, obren egiletza adierazita. Egileek ez dute erreklamatzeko aukerarik izango.

Udalak kontu handienarekin erabili eta zainduko ditu irudiak. Hala ere, ez da haren ardura izango argazkiak bidaltzean, erakustean edo itzultzean nahigabe hondatzen badira.

Parte hartzaileak adierazi eta ziurtatzen du lehiaketara aurkeztu dituen argazkien egile bakarra eta egile-eskubide guztien titularra dela.

Lehiaketan parte hartzean, parte-hartzaileak bere obra lan originala eta indibiduala dela, eta bera dela lanaren jabe bakarra adieraziko du.



Aurkeztutako obrarekin zerikusia duen jabetza industrialeko edo intelektualeko eskubide bat urratzeari buruz hirugarrenek aurkeztutako demanda edo erreklamazio orotatik salbuesten du parte-hartzaileak.

Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du Donemiliagako Udalari lagatzen zaizkiola aurkeztutako obren erreprodukzio, banaketa, komunikazio publiko eta eraldaketarako eskubideak, Jabetza Intelektualari buruzko legeriaren arabera.

Antolakuntzak beretzat gordetzen ditu lehiaketatik eratortzen diren irudi, argitalpen eta erreprodukzio eskubide guztiak.

Parte-hartzaileek doan lagako dituzte beren irudiari lotutako eskubideak. Horretarako, Donemiliagako Udalari baimena ematen diote, alde zurretik, ekitaldiaren ondorioz lortzen diren argazkiak erabiltzeko, editatutako promozio-erreportajeetan erabili ahal izan daitezen, online zein off line formatuetan.

Donemiliagako Udalak ez du bere gain hartuko lehiaketan parte hartzen duten obrek edo materialek lanen erakusketan edo lehiaketa prozesuan jasan dezaketen edozein gorabeheraren erantzukizunik, hala nola, lapurreten, galeren edo narriduren erantzukizunik.

Erakundeak eskubidea du oinarri hauetan arautu gabeko erabakiak hartzeko, betiere oinarrien funtsezko edukia aldatzen ez badute.

11.- OINARRIEN ONARPENA.

Sariketari parte hartzeak arau hauek osotasunean onartzea eta kontutuan izatea dakar berarekin.